

Yasmine Motarjemi aditu bipilak aurre egin dio Nestlé ahalguztidunari



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Yasmine Motarjemik borrokan dirau jakien alorrean munduko lehen multinazionala den Nestléren kontra. Auzitan azken sei urteotan enpresaren elikadura segurtasunerako zuzendari zenetik jazarri zutelako, lanik gabe utzi eta teknikari moduan izen ona zikindu dioten arren, Motarjemik ez du amore eman nahi korporazioaren inpunitatearen aurrean, ez du onartzen elikadura bidezko hainbat infekzio zigorrik gabe utziz jendeen kutsadura berriak ez saihestea.

“Lanceur d’alerte” deitzen diete frantsesez, *“alertador”* gaztelaniaz, *“whistleblower”* ingelesez... eman dezagun egun batean erabakiko dela euskaraz *alerta jotzaile* bataiatzea honako pertsona, talde edo erakundeak: arrisku edo eskandalu baten aurrean alarma deia egiten dutenak, horrekin eraginez arauen aldatze, eztabaida edo mobilizazio kolektiboa. Gehienetan gizakia, ekonomia, gizartea, edo ingurumena mehatxatzen duten gauzak aurkitu dituztelakoan eskuzabaltasunez gaia jartzen dute erakunde ofizialen, elkartearen edo hedabideen eskuetan, batzuetan beren hierarkiaren iritziaren kontra.

Bere burua alerta jotzaileen hedabideztat duen *Le Mur des Insoumis* [Intsumisoen Horma] webguneak elkarriketa egin berri dio Yasmine Motarjemiri, jendeari azaldu diezaion bere kasua: “Esne kutsatua: Inork ez dio galdetu Nestléri ea zer egin duen arazoa berriro gerta ez dadin”.

Izan ere, Motarjemik sei urte daramatza borrokan Nestlék Suitzan daukan zuzendaritza zentralaren aurka, hori elikadura segurtasunerako zuzendari zenean jasandako jazarpena salatzeagatik. Ez du onartu enpresa utzi eta isiltzearen truke eskainitako kalteordaina, multinazionalak eragindako giza kutsadura arazoak ez daitezen geratu argitu eta konpondu gabe.

Yasmine Motarjemi OME Osasunerako Mundu Erakundeak 1990ean kontratatatu zuen, zientzialari ezaguna izanik elikadura segurtasunean lan egin zezan.

Elikagaien infekzio toxikoak zaintzeko arduradun izendatu zuen OMEk, hau da, jakiek bai mikrobioz edo bai gai kimikoz jasan ditzaketen pozoitzeak gainbegiratzeko. Munduko gobernuei aholkuak ematen zizkien elikadura segurtasun aferetan eta enpresen segurtasun programak ere zaintzen zituen.

OMEko arduradun zelarik Nestléren elkarlan batzuk egin zituen Industrial Council for Development Gobernu Kanpoko Erakundearen bitartez. Gero, 2000. urtean elikadura segurtasunerako zuzendaritza eskaini zion Nestlék.

Konpainian sartu zelarik, fite ohartu zen ezagutza mailan dena zihoala ongi Nestléren, dokumentazio guztia O.K. zegoen, gehitu beharreko deus gabe. Aldiz, segurtasun planak praktikara eramaterakoan aurkitzen hasi zen hutsuneak, fabrika batean langile gutxiegi, beste batean hornitzeko prozeduretan akatsak... Esaterako, haurren janarietarako erabakitako bitamina eta beste osagaien kopuru aratuak produkzioan nola frogatzen ziren galdezka hasita, hutsuneak zeuden. “Batek esaten zidan, ‘bada hoge urte ez dugula hori frogatzen’ eta abar, eta nik ezin nituen nire lanak eskatzen zituen kontrolak sinatu”.

Bere lana izanik konpainiaren produkzio prozesuetan beharrezko aldaketak eragitea, ardurak kentzen hasi zitzaizkiola ohartu zen laster. Lehen arazo larriak 2002an hasi zitzaizkion.

Urte hartan bi haur itotzear ibili ziren Frantzia *P’tits Biscuits* galletak iren-

tsi nahian. Urte hartan, hala ere, denetara 30 haur gehiago larri ibiliak ziren bizkotx horiekin munduan. “Berehala gailera horiek kontsumitzeko adina igotzea eskatu nuen, gauza ez baita umeak hiltzen hastea kontrolak ezartzen hastea, hori eta gehiago eskatu behar diogu Nestlé bezalako konpainia bati”.

Hasieran goiko buruzagiek gomen-dioak kontutan hartu zizkioten arren, Motarjemiri arazoa zaildu zitzaion Nestlék Frantzia zeukan elikadura segurtasunerako zuzendaria, hain zuzen urte horietan guztietan produktu susmargarriak baimentzen aritu zena, Suitzara eramane eta ipini zutenean Motarjemiren gaineko arduradun. Hor hasi zitzaizkion errepresaliak, epaitegietan jazarpen profesionaltzat salatu dituenak.

Edo isildu edo zigorra nozitu

Motarjemik ohartarazia zuen Nestléren haurrentzako produktuek bitamina eta mineral dosietan zeukaten kontrolik ezaz. Baina fabriketako produkzio buruek ez zituzten oharrok kontutan hartu eta kalkulak berritu nahi, batzuen eta besteen gutxieneko eta gehieneko edukien mugak aspalditik ezarrita zeudela argudiatuz.

Arazoari aurre egiteko lan talde bat osatzea lortu zuen, baina emaitzarik gabe. 2005ean Txinan gertatutakoak erakutsi zuen Motarjemik salatuak ez zirela kontu ahulak: Nestlék esne-hauts sorta osoak erretiratu behar izan zituen dendetatik, iodo gehiegi edukitzeagatik.





Laurent Gillieronon argazkian, Yasmine Motarjemi Lausanneko (Suitza) epaitegien atarian, bere auzia ikusi den egunetako batean. "Zergatik gertatu da zaldi okelaren eskandalua? Zergatik izan da hain handia? Zergatik gertatu da Volkswagenen kutsadurarena? Inork ez duelako aurretik salatu, bazekien inork ez duelako hitz egin. Gizarteak ez bagaitu sostengatzen nirea bezalako egoeran gaudenok, hitz egiteko gai diren beste adituak ere isildu egingo dira".

Nestléko buruek ez zuten gertatuarekin ikasi, ordea. 2006an konpainiaren *quality manager* berri izendatu zuten Roland Stalder, Motarjemik salatu duenez "OME bezalako osasun erakundeen arauak mespretxatzen dituen gizona".

Segurtasun krisi gehiago gertatzen ikusia da. 2005ean Nestlé-Purinak aflatoxinaz kutsatutako pentsua janda zientoka katu eta zakur hil ziren Venezuelan. 2008an Ukrainako ekilore-olioaren afera gertatu zen, hori olio mineralekin faltsutu eta kutsatzeagatik. 2010ean, horrelakoak saihesteko kontrolak zorroztea eskatzen zuen zientzialari izarra kaleratu zuen Nestlék eta bere ekipoa desegin, argudio mingarri hau erabiliz: "Guretzako elikadura segurtasuna gauza garrantzitsuegia da inoren huts egi-teak barkatzeko. Horregatik iritsi zaigu Yasmine Motarjemi baztertzeko ordua".

Denborak ematen duen urruntasunetik, dio Motarjemik: "Herriarrok askatasun osoa uzten diegu Nestlé bezalako enpresa handiei, horregatik daukate horiek inpunitate osoa. (...) Arazoen berri ematen duen edonor, ni bezala, berehala pertsegitzen dute. Eta jazartzeko estrategiarekin ez badute pertsona suntsitzea lortzen, orduan kale gorriara botatzen dute, lan berri bat aurkitzeko zailtasunekin. Gaur egun [60 urte dauzka] ez naiz lanean ari nire bizimodua irabazteko, baizik eta jendearen kontzientzia ernarazi eta ulertarazteko zer ari den gertatzen".

Nestlék arazo nagusia ez du aldatu, antza, eta enpresaren auditoria egiten duena bera da konpainiaren elikadura segurtasuna kontrolatzen duena. "Azkenean, produktu bat toxikoz kutsatuta dagoela jakingo da jendeak gaixotzen

hasitakoan, eta orduan esango dizute 'abisatu herrialdeko agintariei'. Baina prebentzioa ez da jendeak noiz gaixotuko zain egotea gauzak aldatzeko".

2008an Nestlék eta beste konpainia batzuek melaminaz kutsatutako esnez gaixotu ziren 300.000 ume Txinan. Aurretik, 2007an, melaminaz kutsatutako pentsuz erituak ziren katu eta zakur asko AEBetan. 2009an bakterio hilgarri batez kutsatu ziren 77 jende AEBetan, bi urte geroago kutsadura beragatik 60 lagun hil Alemanian.

Nestlék asmatu zuen nola oztopatu justiziaren ikerketa: "Astakeria handiena esan dezakete lasai, badakitelako ukiezinak direla, justizia eros dezaketela, eta nirea bezalako auzi bat blokatu eta luzatu dezaketela nahi adina. Legearen gainetik daudela sentitzen dute". ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

